

Riomundo. Jon Maia Soria. Tafalla, 2005

**-Gure kulturan ekarpen asko egindako pertsona dugu Jon Maia;
gaur, hemen,**

**Riomundo liburuaren egile gisa gonbidatu dugu. ESKERRIK
ASKO etortzeagatik.**

**-Normalean Edu egoten da hemen eserita, gaur berak bultzatuta
ni topatzen nauzue.**

**Soilik gaurko saiorako, lasai. Nik proposatu omen nuen irakurgai
bezala. Egia da bere**

garaian oso gustura irakurri nuela, eta orain ere bai.

**-Liburuaren azala. Nahiko adierazkorra dirudi, baina zuretzat zer
jasotzen du?**

**-Liburuaren gaineko 2 kritika topatu ditugu, eta haietan oinarrituz
prestatu ditugu
galdera batzuk.**

Aritz Galarraga, Gara, 2006-02-25

o 1997an jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko final hartan:

**o “Ama Extremadura aita Zamoratik / abuela ta abuelo haiek
aurretik. /**

**Herri hontan sustraitzen asmatzeagatik, / nik’e maita dezaket
guztien**

**gainetik. / Euskeraz badakit / bertsoz darabilkit / dena zuengatik /
halaxe dagokit / **denek kantatu dute nere ahotik”****

o Hemen al dago liburuaren ernamuina?

**o Paralelismo baten bitartez atze-aurreak batzen ditu
narratzaileak.**

o Paralelismoa adierazi nahi zenuen? **Jazarriak han eta hemen.
Errebelatzen han eta hemen?**

Ibon Egaña, Berria, 2006-03-07

o Esku trebea nabari zaio Maiari. Ahozketasunetik gertu, eta estilo horrek hainbat arazo ditu.

o “Traszendentsia duen jazoera eta pasadizo hutsa dena maila berean aurkezten dira ia, eta pertsonaien baitan gatazka eragin dezaketen egoerak eta tentsioak ez dira bere sakontasunean iristen irakurlearengana”

o Pertsonaien sentimendu eta ideiak, bakarrizketa edo barne hausnarketa alegia, leku gehiago har zezakeen?

o “Nobelaren erakargarritasuna eta berritasuna Espainiatik Euskal Herrira etorritako etorkinen ikuspegia lehen pertsonan eta euskaraz ematean datza”

o “nobelak ez du lortzen ertzez betea eta arantzatsua izan zen gatazka identitario, ideologiko eta kultural hori bere gorrian plazaratzea”

o Eleberri batek garatu gabeko esparruak, besteek bete ditzaten, utzi beharko ditu, ezta?

o “Sierratarren baitan gertatzen den aldaketa ideologiko eta kulturala, abertzaletasunera eta euskaltzaletasunera hurbiltzen dituen arakatzeak bazuen interesa, baina hori ere sinpleegi, lauegi dago azaldua”

o Nola ikusten duzu?

(Zabaldu mahaingurua bertaratutakoei)

(Besterik ez balego behekoak erabili daitezke)

-Ezagunak zaizkigu, niri bai behintzat, historia hau bizi duten familiak. Gainera, eta garrantzizkoagoa, eleberriak badu unibertsaltasunetik, garai eta lekuez gaindi.

-Liburuak, nire ustez, mahaigaineratzen ditu garai desberdinak: gerra aurrekoa, gerra, eta gerra ostea familia baten historiaren arabera.

o Asmoa da historiaz eta istorioez hitz egitea familia baten bitartez edo familiaren istorioen bitartez gizartea erretratatu, ala biak?

Atzerriratze eta bertakotze prozesuak.

o Argazkia balitz bertakotzea lehen planoan izango litzateke, eta atzerriratzea fondoan? Pobreen eta aberatsen arteko gatazka.

Pertsonaien borroka eta militantzia egituraren aurka.

o Borroka horietan protagonisten duintasuna azaltzen saiatu al zara?

Gerra.

o “Ez dakigu gerra egiten” Pedrok dioenean, salatzen duzu zerbait?

Herrimina.

o “Gure herrian meloi izugarriak ateratzen dira arboletatik”

o “Zein itsusiak diren hemengo emakumeak”

o “Bai zozoak (bertsolariak)”

o Beren identitatea indartu beharrean sentitzen dira iritsi berriak? Eta horregatik halakoak esaten dituzte?

Aldaketa ideologikoa.

o Bilobak ikastolara eta gurasoak gaueskolara.

o ...denak elkartzen hasi ginen, su berrien bueltan, atsedean hartzeko, hitz egiteko, nondik jo erabakitzeko.

o Identitate berria eraikitzen doa? Militantzia zabalduz eta errotuz?

Nire AZPIMARRAK

-Isilik egon zaitez, nena, hasi da eta! Denak zutik eta ukabila gora, **hau Internazionale da**. Ea noiz ikasten duzuen.

Gu denak zutitu ginen, aitek esan bezala. Nire ahizpa Marisitak txorizo muturra ahotik zintzilik zuen.

-Baina ume batzuk baino ez dira eta, **Pedro!**

-Arrosarioa balitz, ez zenieke ikasgaraziko!

-Arrosarioa nik kartzelan pasatu nuena, **Paca.**

Otsoa ni baino gehiago zen, ezin nuen haren aurka. Heldu zidan lepotik eta beherantz bultzatzen ninduen, ito nendin, han, inork nire berririk jakin gabe, putzu beltz hartan. Lehenengo aldiz, bertan hilko ote nintzelako beldurrak hartu ninduen. Emakume batzuen marmarioa entzutea iruditu zitzaidan, Hala zen, **kardantxilo** talde bat gora eta behera ari zen, zelaia inguratuz, erreklamoak zegoen tokirantz. Zer kantatuko ote zuen txori hark gainontzekoak erakartzeko?

-Begira zenbat!

-Esan dizut, ñako, ez zaitez mugitu makiletan itsasten diren arte!

Txoritxoak, hankak ezin altxatuta, adaxkei itsatsita zeuden, denak ere ahalegin antzuetan tiraka eta txioka.

-...y a Marisa Sierra Valderrama, de Villarreal de Urrechua, en su primera comunión, con mucho amor cariño de parte de toda su familia, y para que pase un día muy feliz, Mi primera comunión, de Juanito Valderrama.

-Ea zer galdetzen zizuten...

-**Partidu Komunistako jendearen izenak**, non elkartzen den, zeinek daraman hau, hori eta bestea... betikoa. **Manta bat bildu zidaten gorputzera eta soka batzuekin lotu ninduten.**

..eta ez zen posible begiak ezertan **AMUTZEA**. *Desterratuari, lur arrotzean dabilela, nondik datorren ahaztu eta galduta sentitzea baino ezer txarragorik ezin zaio gertatu. **Nondik datorren ahazten duenak inoiz ez baitu itzultzeko modurik izango.***

2. ATALA

¿de dónde vienes, Juan Simón? Y él enjuagando sus ojos contestaba a media voz: soy enterrador y vengo de enterrar mi corazón.

Lurrak mundu osoan zurruputzen duen ura, munduko elur guztia urtzean jasotzen duen ura, gainezka egiten dionean, handik okatzen

du. **Horregatik, Rio Mundo esaten diote paraje horri, munduaren uzkiari.**

Pedrok ez zuen gogoratzen aitik inoiz ofiziorik izan zuenentz. **Beti basoan ezagutu zuen, mendian, ehizan, tranpetan.** Berak ez zuela inorentzat lanik egiten erantzun zien behin finka baterako jornalari eske etorri ziren bi gizoni. Amak alferkeria ezkutatzeke zela esaten zuen, baina Pedroren aitik ez zela inoren esklabo, eta mendian bazegoela nahikoa denontzat erantzuten zion.

Ama gaixoa, esnea nonbaitetik atera behar eta, arrebaren titiari atera zioten. Horretan beren beregi zekien andre bat abila bazen herrian, Tiradora zeritzotena.

Tiradora hark zupa eta zupa egiten zuen esnea ekarri behar zuen emakumearen titiburutik, eta berak irizten zion besteko saioak egiten zituen, zupa eta zupa, azkenean, esnea ateratzen zion arte.-Ba al dakizu, seme, gure aitonaren aitaren amonaren osabaren aitaren aitona bandoleroa izan zela?

Pedrori begiak piztu zitzaizkion, basakatuari gauean bezala.

-Eta nola esaten zioten? Ze deitura zuen?

-El Rachas.-El Rachas? Bada, batzuetan jaten zuelako eta besteetan ez. Gu bezala, Los Rachas.

Hala ziren ezagunak herrian nire aitaren familiakoak.

Lurrean gorpu zetzan gazte hark hogeita bost urte zituen.

Lurrean gazte zetzan gorpu hark. (figura literarioa)

Gurdi zahar baten azpian ezkutatuta, **galgo gizajoak taldearen pasaerari jarraitu zion begiradarekin**, patuari izu begiekin begira.

Ordurako jende andana batu zen etxaurrera, **eta marmarioa uholde lehertu zen**, oihu eta madarikazio.

Juanen etxea herriko beste etxe gehien antzekoa zen, **pezuzkoa**, zuri zikina kanpotik eta barrutik.

-Hemen ez da ezer aldatu, Vicente! Ez dago lanik, ez Azañak agindutako lurrik ez ezer! Lehen baino okerrago gaude, ez dugu aurrera egiten!

-Nork epaitu behar ditu guardia zibilak? -beste ahots batek.Partikularrek jakin zuten, Albako etxeak hainbat lur erosi zituen, komunalak, herriaren lur izandakoak.Elizako ezkilak zortzi aldiz jo zuen eta teilatuetako usoek airera egin zuten. Ondoren, **isiltasuna usoak teilatuetan bezala pausatu zen.**

Aurrean sei atxilotuak, guardia zibilez inguratuta, eta atzetik, jendea. Ehunka herritarrek herritik herrirako bidean korridore bat osatu zuten bidearen bi aldeetara. **Hemezortzi kilometroko jende korridorea.**

Yesteko sarraskian guardia zibil bat eta hamazazpi jornalari hil ziren.

Estolderietan tirokatuta agertu ziren sei, eta gainontzekoak plazan eta kaleetan barreiatuak.

Herri hark batzuetan herri bat zirudien. Hiru mila biztanle ingurukoa, eskualdeko burua zen eta, beraz, guda-plaza garrantzitsua.

Errepublikako miliziarrek han zirenetik, herriko jauntxo eta kazikeek alde egin behar izan zuten, beren finkak eta lur sailak lanerako erabil zituzten jornalariak eta gudako lehen lerro bezala gudarosteek.Pedro eta Luisaren artekoak gerrarekin batera egin zuen aurrera. Etorri ziren etorri errondak, olibondoetara paseo luze bekatuzkoak igande arratsetan, izen berriak korruetan...

Eta eredugarria izan zen. Okupazio militarren lehenengo egun horietan milaka susmagarri fusilatu zituzten, pobre izatearen susmagarriak.

Etxean bi anaiak eta ahizpak aurkitu zituen, gorpuari azken ukituak ematen ari ziren. Arreba zaharrena madreri soineko grisa, ezkondu zenekoa, atontzen ari zitzaion.

-Gauean zendu da. Ez nuen uste etorriko zinela, Pedro -anaia sakristauak berotasunik gabe ahotsean.Gerra osteko herri hura erabat bananduta geratu zen, irabazleak eta galtzaileak. Galtzaile gehiago ziren irabazleak baino hasiera batean. Baina, poliki-poliki, galtzaileak desagertzen joan ziren. Ez ziren kanean ibiltzen, ez mezetara joaten. Finketan ez zegoen lanik haientzat eta gerrak elkarrekin egoteko

adorea ere kendu zien.-Ez zaitez joan olibondoetara, Pedro, harrapatzen bazaituzte arazoak izango dituzu! Badakizu aitzakia bila dabilzkizula -Luisak ohetik, dena entzun ondoren.

3.ATALA

PEDRO ETA LUISAREN SEME munduratuko nintzen. Nire lehenengo oihuek nire anai-arrebak esnatu zituzten, Senencito eta Marisita, hamaika eta bi urtekoak.Haatik, ez ziren iritsitako denak geratzen. Heldu berri horietako askori ezinezkoa egiten zitzairen bizimodu eta lanbide berrira egokitzea. Bizitza osoan jornalari, nekazari, abeltzain lan egin zuen jende harentzat forjatze lana, makina lana, labea, burdina gorria, pabiloia, fabrikako bizimodua, oro har, jasanezina zen, eta apopilo etxe horietan langileen joan-etorriak etengabeak izaten ziren. Labea, egunean hamabi hamalau ordu egir behar izaten zituen lanean, diru pixka bat aurreratuko bazuen.

Esplotazioaren paradisua zen infernu hartan elkar ezagutu zutenetik, Velando eta nire aita lagun minak izango ziren, hil arte.

Okerrenak bertakoak dituk, hemengo jendea. Enpresaburuak, nik ezagututako denak. Hiru lekutan egon nauk eta denetan berdin. Fatxak dituk.Lehengo baserritarrek kaleko fabriketara lanera joan eta han etxea erosi zuten askok, baserriak abandonatuta. Orain, horietako asko kanpotik zetozen familia haiek alokatzen zituzten. -Hitz egin pixka bat **vascuencez!**

-Ez, ezin da, debekatuta dago.

-Zergatik, padre? -anaia zaharrenak-. Hango komunisten hizkuntza al da ba?

-Hasi al zara umeei buruan tontakeriak sartzen? -tia Paca,eta hainbeste ginen iritsi berriak, denbora gutxian bertakoen kopurua gaintitu eta boskoiztu genuen.-Dena ondo joan da, neska eder bat daukazue -Neska? Nigatik erre kara bota dezakezue!Ume haiek pena pixka bat ematen ziguten hainbeste obligazioekin bizi behar izateagatik. Baserrian ere lanean jardun behar izaten zuten, eskolatik bueltan, eta gero hango usainak ekartzen zituzten hurrengo goizean

eskolara. Ez zuten espainolez asmatzen, ez zekiten guk bezala hitz egiten eta zartako galantak ematen zizkien irakasleak. Guk ez genuen arazorik hizkuntzarekin, espainolez baino egiten ez genuelako, baina irakasleak berehala ikusi zuen ez ginela bere aldekoak. **-Ene, zein itsusiak diren hemengo emakumeak-**gure amak-. Ikusten al duzu nolako sudurrak dauzkaten gehienek, ez dakit, kokotsa eta, itsusiak...-Vascuencez ari dira - Julianek ondotik-, eta zein gaizki kantatzen duten, ez dakit nola dagoen hainbeste jende begira.

-Bai zozoak! -aitak-, baina jendeak barre egiten du, batez ere txikiarekin. Orain pentsatzen jarrita, hemengo enpresaburuek herriari ekarri dioten aberastasunarena eta aurrerapenarena entzuten dudanean, hamahiru urterekin egunero goizeko orduetan nola joaten nintzen gogoratzen naiz, eta konometratzaileez, zaindaries, lan istripuez. Hilabete gutxitan PCEko gazte egituretan buru-belarri eta zango begi nenbilen, diru bilketetan edo beste edozein lanetan laguntzen. Herriko komitean onartu ninduten. Bertakoei, aldiz, euskaldunei, arrotza zitzaien hori guztia, eta apenas genuen inor bertakorik gure artean. Gorriak ikusi arren, **ez ziren gorriak, hori maketoen kontua zen**. Hura berria zitzaien, eta, gainera, kanpotik etorria zen. Emaizak tamalgarriak izan ziren: fabrikaren zuzendaritzak ez zuen onartuko hamar langile horiek berriz enpresan hartzea, eta adostutako aldarrikapenak ere gutxienekoak ziren. Hiru hilabeteko borrokaren ondorengo emaitza eskas hura kolpe handia izan zen.

4. ATALA

Lasai, ama, ni hil egingo naute, baina euskaldun guztiak zure seme-alabak izango dira.

Juan Paredes Manot, Txiki

Aizu, tabernan esan didate, Txiki hori, fusilatu behar duten hori, extremeñoa dela. Zalameakoa edo.

-Bai, hangoa da, zer ba?

-Baina ez al da ba ETAkoa?

5.ATALA